



F. E. V. A.

FEDERACION DE ENTIDADES VASCO ARGENTINAS
(Euzko - ARGENTINAR BAZKUN ALKARTASUNA)
FLORIDA 461 - Esc. 8 - T. E. 31 - 7035

Euzko Argentinaren
bazkun-alkartasuna

Buenos Aires, 1962'gko. Jorralla-15'gn.

CENTROS FEDERADOS

- Soc. de S. M. Euskaldunak Denak (Arrecifes)
- Soc. Unión Vasca de S. Mutuos (Bahía Blanca)
- Centro Basko Argentino "Danak Bat" (Bilvar)
- Centro Vasco Arg. "Danak Anaiak" (Bragado)
- Acción Vasca de la Argentina (Capital Federal)
- Centro Euzko Txakoa (Capital Federal)
- Centro Laurak-Bat (Capital Federal)
- Emakume-Abertzale-Batzua (Capital Federal)
- Euskaltzaleak (Capital Federal)
- Centro Basko Argentino "Aberri Etxea" (Carmen de Patagones)
- Soc. Euskal Echea de Soc. Mutuos (Comodoro Rivadavia)
- Centro Vasco Argentino "Gure Txakoa" (Córdoba)
- Soc. Euskal Echea (Coronel Suárez)
- Centro Basko Argentino (Chascomús)
- Centro Euzko Etxea (La Plata)
- Centro Vasco Denak Bat (Lomas de Zamora)
- Centro Vasco Denak Bat (Mar del Plata)
- Centro Basko Arg. Euzko Etxea (Necochea)
- Centro Basko Etxe Maitea (9 de Julio)
- Centro Vasco Arg. "Etxe Maitea" (Olavarría)
- Centro Vasco "Lagun Onak" (Pergamino)
- Centro Vasco Zazpiak Bat (Rosario)
- Rosario'ko Emakume Abertzale Batza (Rosario)
- Centro Vasco Euzko Etxea (San Juan)
- Centro Euskal Echea (San Nicolás)
- Centro Vasco Argentino "Gure Echea" (Santa Fe)
- Centro Vasco Argentino "Gure Etxea" (Tandil)
- Centro Vasco Euzko Etxea (Villa María - Córdoba)

CENTROS AMIGOS

- Centro Vasco (Castell)
- Centro Basko Etxe Alai (Pehuajó)
- Centro Vasco Arg. "Gure Txakoa" (Rauch)
- Centro Vasco Zazpiak Bat (25 de Mayo)
- Euzko Alkartasuna (Macachín)
- Centro Vasco "Ibaiguren" (Paraná)
- Centro Vasco (Puan)
- Centro Vasco Denak Bat (Mendoza)

HERRIA aldizkariaren Zuzendari jaunari.-
8, Rue Jacques Laffitte.
BAYONA'n.

Jaun agurgarri ori:-

Bazkun onekin bat egiten duten 32 Batzoki edo eusko-etxe "HERRIA" aldizkari maitagarri ortara arpidetuta daudela ta, gure gain bialtzen duzuten agiriari gaur arte ez erantzutearren, tamal edo pena aundia dugu, eta parkatu arifia go ezkaralako zueri erantzuten jarri.

Zuen agiria artuz, Batzorde au arritu zan, ba ikusi bear nola izan ziran gauzak.

Ala ikusi dugu, Bazkun-Alkartasun onen maitasuna, euskeraren alde egiten den lanari, zabal-kundea eta maitasun garra sartzea dela. Euskera gabe, gure izakera illa da, ba nor geran ondoen irakasten digun agerpena da. Euskera galtzen bada, gure erriak dena galdu du, ba gure uztez, euskera bizi den arte, euskera mintzatzen ez duten euskotarrak ere, gure izakera daukate. Euskera galtzen denean, dena galdua da.

Au dela ta, gure aurretiko Bazkun aipagarriak, zuekin tratatu zun, 32 eusko-bazkun oyeri, urtebeterako zenbakiak guk ordainduz (pagatuz) zuek bialtzea, baña urtebetean gure bearrian (obligazio) bezala. Bazkun (soziedade) oyetan, Lapurdi, Benabarra ta Zuberoa'ko euskaldunak izango diralez, maitasunez irakurri, eta orra arpidetu (suskribitu) dedizan. Baño, zabalkunde ura, urtebeterako ordaindua (pagatua) izan gendun, ba geyago ezin. Besteak, guk eztugu obligaziorik, eta gure diru faltak eragiñik, ezin pagatu. Guk ziza bagenu, poz-pozik denen suskriizioa pagatuko genu, baña ezin. Ikusi gure aurretiko kartak, eta guk nola egin dugun zuzen, euretan agertuko da. Beraz ikusten duzute gure konpromisa urte bete zela, eta gure partez betatua zela.

Orain beste gauza bat be eginen dugu. Au da, Bazkun deneri karta bat bota, esaten zuen faktura guri igorria dela, eta aldunak pagatutzeko ar-

pide edo zor ori, ba zuen kalte izatekotz, obe ez bialdu, batez ere, gure euskeraganako lana dagien denak, nolako ezutasuna igarotzen duten diru kontuz jakifiez.

Bazkun au arpidedun izango da gure agintza den arte beintzat, eta gaur bertan bialtzen dizkizugute 1960-1961 eta 1962 urteetako arpide zaria, au da 48 libera berri. Pozik izango gira artuak izan dituzutela jakifiz.

Tartean, artu jaun agurgarriok, gure anaitasun berozko agurra, eta beti euskera eta Euskalherriaren alde, zuekin gaude

LABURU'tar DAMASO
IDAZKARIA

Lalau tar Damel

ZABALA'tar JOSU
LENDAKARIA.

Zabala tar Josu